



Jon URBE, Jagoba MANTEROLA, Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

 IKUSMIRA

NESTOR
BASTERRETXEAREN
ITZALA

Uztailak Nestor Basterretxea sortzaile nekaezina ostu zigun. 90 urtetan sortutako ondare artistikoa, baina, gurean eta gurekin geldituko da. Kantauri itsasoaren magalean jaio -Bermeon- eta zendu da -Hondarribian- gerra osteko euskal artearen suspertzaile eta erreferente nagusietakoa izan dena. Sortzen jarraitzeak «bi-ziago» sentiarazten zuen eta bizi legeak bere azken epaia eman arte jarraitu du artelanak ekoizten. Elkartasuna eta euskalgintza izan ditu maiz ardatz eta eskultura, gehien landutako alorra. Zine-magintza garaikidean, margolaritzan eta diseinuan ere utzi du azterna. Denborak lausotuko ez duen marka.

oihana.llorente@gaur8.info



Zimeldu ez den lore sorta

Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendari dituen filma aztarna uzten duen artelan horietakoa da. Gure begi-ninietan iltzatuta geratzen delako batetik, eta noski, gure hizkuntzaren langak gainditu eta Zinemaldiko Sail Ofizialean Urrezko Maskorra lortzeko lehian sartu den Euskal Herrian eta euskara hutsez egindako lehen filma izateagatik.



Gure herriaren mina, pantaila handira

Zorne jarioa etenda, sendatzeko bidea hartu du gure herriaren zauriak. Minari parez pare begiratzeko aukera piztu da, eta sortzaileek ez dute hondoratutako sustraiei tira egiteko aukera baztertu. Dokumentalak eta liburuak gure gertuko historiaren testigu eta plaza bihurtu dira. "Zohardia", "Lasa eta Zabala" eta "Gerra Txikia" zerrenda luze batean adibideak besterik ez dira.

